



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



2024

2023ko memoria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

2023ko memoria

➤ 1. Aurkezpena

➤ 2. Azterlan kuantitatiboak

- Arteen eta kultura-industrien estatistika (2021)
- Sormen-industrien estatistika (2021)
- EAEko kultura programazioaren azterketa
- Orkestra-lehiakortasunerako euskal institutuarekiko lankidetzak
- Ikusiker panelarekin lankidetzak
- Bestelako estatistikak

➤ 3. Azterlan kualitatiboak

- Kultura eta turismoa
- Eraldaketa digitala kultura- eta sormen-arloko sektore eta industrietan
- Publikoen garapena. Audientzien kudeaketa EAEn
- Ondare garaikidea
- Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteko helduek osatutako abesbatzei buruzko azterlana

➤ 4. Kulturklik

- AUTOMATIZAZIOA
- Hobekuntzak atarian
- Txostenak
- Instagram
- Web-analitika
- Datuak

➤ 5. Komunikazioa

- Kulturkaria buletina

➤ 6. Beste jarduera batzuk

- Txostenak egitea, aholkularitza ematea, kontsultak ebaztea ...

➤ 7. Behatokiaren lana zifratan

Laguntza teknikoa:
ICC-CONSULTORS CULTURALS, SL

Itzulpena:
LETE ITZULPENAK-
TRADUCCIONES, SL

Diseinua eta maketazioa:
DIAGONAL 360°

**KULTURAREN EUSKAL
BEHATOKIA**

Donostia-San Sebastián kalea, 1
01010 Vitoria-Gasteiz - Álava
T. 945 016 947
kulturabehatokia@euskadi.eus

1. Aurkezpena

Kulturaren Euskal Behatokiak 2023ko Memoria aurkezten du.

Estatistikaren esparruan, nabarmentzekoak dira urtean zehar egindako hainbat landa-lan, zehazki, operazio hauei dagozkienak: Arteen eta kultura-industrien estatistika (zortzigarren edizioa, erreferentzia-urtea: 2021), Sormen-industrien estatistika (hirugarren edizioa, erreferentzia-urtea: 2021) eta Kultura ohituren estatistika (hirugarren edizioa, erreferentzia-urtea: 2023). Estatistika hauen emaitzak 2024 urtearen erdialdera argitaratuko dira

Aipagarria da, beste alde batetik, Behatokiak unibertsitatearekin duen lankidetzaren jarraipena, esparru horretan kokatzen baitira Orkestrarekin sinatutako hitzarmena eta NOR taldearekin elkarlana [Ikusiker](#) proiektuan. Lan-ildo honek aukera berriak ireki dizkio Behatokiari, bai aztertzen

diren edukiei dagokienez (lehiakortasuna, ikus-entzunezko kontsumoa, generoa), bai aldeentzat dakarren elkarrekiko ikaskuntza prozesuagatik.

Azterketa kualitatiboei dagokienez, honako gai hauek azertu dira, besteak beste: ondare garaikidea, publikoen garapena eta kudeaketa, sorkuntza- eta kultura-sektoreetako eraldaketa digitala eta kulturaren eta turismoaren arteko harremana. Gogoratu behar da, halaber, Behatokiak sektore-eskaerei irekitako leihoa duela, eta, ildo horren baitan, 2023an Euskal Herriko Abesbatzen Elkartearekin lan egin du.

Kulturklien inguruko lanak eta komunikazioaren bidez Behatokiaren lana ezagutarazteko ahaleginak osatzen dute 2023an egindako lanen programa.

2. Azterlan kuantitatiboak

2023an, estatistikaren arloko lanaren emaitzek txosten hauek eman dituzte:

Arteen eta kultura-industriren estatistika (2021)

Kulturaren Euskal Behatokiak *Begiradak* txostena aurkezten du, Arteen eta Kultura-industriren 2021eko datuak bilduta. Kultura-sektoreen egoeraren gaineko irakurketa osoa egiteko asmoz sortua, interes handiko bi elementu plazaratzen ditu: kultura-sektore osoaren gaineko ikuspegi holistikoa, eta kultura-politikaren gai nagusiei buruzko zeharkako irakurketak.

Edizio honetan, pandemian jasandako inguruabarrak gehitu behar dira, 2021ean oraindik irauten baitzuten edukierai,

ordutegiei eta pertsonen mugikortasunari buruzko murrizketek. Gogora ekarri behar da 2022ko otsailera arte ez zela dekretatu Euskadiko osasun-larrialdiko egoeraren amaiera. Salbuespenezko egoera horrek eragin handia izan zuen kultura-jarduera presentzian; izan ere, aldakortasuna eranstean die datuei, azken edizioetan erregistratutako joera-ildoak hausten ditu etaalde nabarmenak sortzen ditu sektoreen artean. Informazio hau, hortaz, une korapilatsu baten erretratua da, eta hala tratatu behar da.

Edizio honetako beste berritasun bat berdintasun-politikei buruzko atala da, emakumeek enpleguan duten presentziari buruzko azterketa osatzen duena.

Sormen-industriren estatistika (2021)

Kulturaren Euskal Behatokiak Sormen-industriren Estatistikaren hirugarren edizioaren emaitza zehatzak aurkezten ditu, 2021eko emaitzekin. Bi urtez behingo eragiketa da, eta arkitekturaren, diseinuaren, hizkuntzaren industriren, modaren, publizitatearen eta bideojokoen sektoreetako 328 eragilek hartu dute parte.

Eragiketa honek Euskal Autonomia Erkidegoko sormen-sektoreak eremu pribatutik dinamizatzen dituzten eragileei buruzko informazioa ematen du. Haien tamaina, bolumen ekonomikoa eta jarduera ezagutzeko oinarritzko datuak dira.

EAEko kultura programazioaren azterketa

2023an, Kulturklikeko datuak iturri dituzten bi txosten-serie abiatu ditu Kulturaren Euskal Behatokiak.

– Kultura-programazioaren azterketa: hiru hilean behin, eta urte osokoa.

- [EAEko kultura programazioaren azterketa. 2023ko lehen hiruhilekoa](#)
- [EAEko kultura programazioaren azterketa. 2023ko bigarren hiruhilekoa](#)
- [EAEko kultura-programazioaren azterketa. 2023ko hirugarren hiruhilekoa](#)
- [EAEko kultura-programazioaren azterketa. 2023ko laugarren hiruhilekoa](#)
- [EAEko kultura-programazioaren azterketa. 2023. urtea](#)

– Emakumeek eta gizonek kultura-programazioan eta kultura-sorkuntzan duten presentziaren eta parte hartzearen azterketa: urtero (urtean sektore bat edo batzuk, laginaren tamainaren arabera)

- [2022an EAEko musika sorkuntzetan eta ekitaldietan emakumeek eta gizonek izandako presentziaren eta parte hartzearen azterketa](#)

Orkestra-lehiakortasunerako euskal institutuarekiko lankidetzak

Behatokiak Orkestrarekin duen lankidetzahitzarmenaren baitan, azterlan bat aurkeztu da:

- [EAEko Kultura eta Sormen Industrien Covid osteko bilakaera](#)

Ikusiker panelarekin lankidetzak

[Ikusiker Panela](#)ren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako gazteek daukaten ikusentzunezkoen kontsumoa eta Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) erabilera aztertzea. Applika+ (US20/21) ikerketa-proietuaren barruan kokatzen da Ikusiker Panela izeneko lan-lerroa eta bertan elkartzen

dira UPV/EHUko, Tabakalerako, EITBko eta Kulturaren Euskal Behatokiako lan-taldeak.

Bestelako estatistikak

Behatokiaren webgunean, halaber, EAEko argitalpenen errealitatea ezagutzeko egin diren azterlanak argitaratu dira, zeinak Euskadiko Editoreen Gremioarekin koordinatuta egin baitira.

- [Euskal Autonomia Erkidegoko argitalpenak - Barnemerkataritza 2021](#)
- [Euskarazko argitalpenak 2021](#)

3. Azterlan kualitatiboak

Kultura-politiketarako garrantzitsuak diren gaietan sakontzeko egiten diren azterlanak dira. Gaien kataloga konfiguratzeko, planteamendu integral bat hartzen da, zeinak barne hartzen baititu bai alderdi sektoriala, bai bokazio publikorako politikak, behar kolektiboak eta interes orokorrari erantzuteko bideratzen direnak.

Kultura eta turismoa

Kulturaren eta turismoaren arteko harremanaren azterketara bideratua dago azterlan hau, eta bi alderdi uztartzen ditu: alde batetik, estatistiken bidez lortzen den begirada enpirikoa, eta, bestaldetik, kultura-turismoaren kontzeptuaren beraren inguruko gogoeta, bai eta turismoaren eta kulturaren arteko norabide biko harremanaren inguruan dauden erronken ingurukoa ere. Azterketaren azken xedea ez da kultura bisitari gehiago harrapatzeko erakargarri

turistiko gisa erabiltzea, baizik eta kulturak ere turismoari onura ateratzeko baterako estrategiak proposatzea. Helburua da datozenek proiektu kulturalak eta sormenezkoak, sarritan ohiko zirkuituetatik kanpo daudenak, ezagutzea eta zer garen kontatzen duten eta sormen-ehunean eragin onuragarria daukaten esperientzia jatorrak bizitzea. Ildo horretan, garrantzitsua da galdera hauetaz gogoeta egitea: nola ikusten dugun geure burua, zerk definitzen gaituen eta zer helarazi nahi diegun gure nortasunari buruz bisitatzera datozkigunei. Herrialde gisa azaltzen gaituen kontakizun bat eraiki behar da, eta esparru sinboliko hori estrategia eta produktu turistiko zehatzetara eraman.

Eraldaketa digitala kultura- eta sormen-arloko sektore eta industrietan

Kultura- eta sormen-arloko sektore eta industrietako eraldaketa digitala aztertzen du txosten honek. Planteatu den metodologiak analisi dokumental zabal bat eta 2023ko otsail eta martxo bitartean egindako elkarrizketa sakon batzuk konbinatu ditu, kultura- eta sormen-sektoreak ezagutzen dituzten teknologietako espezialistekin, bereziki bideo-jokoen eta hizkuntzaren teknologiaren sektoreetan.

Lau eduki-multzo handitan egituratzen da txostena. Lehenik, sei ikuspuntutatik aztertzen da eraldaketaren inguruko testuinguru globala: egungo estrategiak, joera teknologikoak, datuak, jabetza intelektuala, etika eta eskubideak, eta gaitasunak. Bigarren blokeak eraldaketa-fenomeno horren eta KSlen berezitasunen arteko intersekzio horiek azpimarratzen ditu. Azterketa espezifikoko bi helburu-sektoretan

ardazten da hirugarren blokea, KSlen abangoardia teknologikoa direlako: alde batetik, ikus-entzunezkoak eta bideojokoak eta, bestetik, hizkuntzaren industriak beren alderdi teknologikoan. Azkenik, ikerketaren ondorioak aurkezten dira.

Publikoen garapena. audientzien kudeaketa eaen

“Publikoei buruzko azterlana, teoriatik eta praktikatik egindako analisia” izeneko txostena egin zuen 2015ean Kulturaren Euskal Behatokiak, eta hura eguneratu eta osatzen du honek. Behar jakin batetik abiatzen da 2023ko txosten hau: kultura-sektoreak pandemiaren aurreko audientzia-mailak berreskuratzeko duen zailtasunarengatik duen kezka, eta gaiaren egoera aztertzeko helburu nagusiarekin egiten da, Covid-19tik eratorritako jarduera geldiarazteak oraindik markatzen duen testuinguruan audientzien garapenari dagokionez.

Helburu hori lortzeko, parte-hartze kulturean oinarritutako ikuspegia hartuz bideratzen da eztabaida teorikoa, eta gaur egun audientzien garapenari gehien eragiten dioten faktoreetako batzuk kokatzen dira beren testuinguruan; enpirikoki sakontzen da audientziak galdu eta berreskuratzean; Euskadin publikoak garatzeko egiten ari diren esperientziak aztertzen dira, eta, azkenik, ekintza-ildo estrategikoak zehazten dira.

Ondare garaikidea

Kulturaren Euskal Behatokiaren ondare garaikideari buruzko lehen txosten honek gaiaren inguruko erronka eta definizio berriak ikuspegi generiko batetik aztertzen ditu, eta eztabaidari ideiak ematen, sortzen eta bideratzen laguntzen du. Ondarearen kudeaketa orokorrean jartzen du arreta, eta ez ditu aztertzen museoei, artxiboei, ondare bibliografikoari eta abarri lotutako araudi eta prozedura sektorialak.

Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteko helduek osatutako abesbatzei buruzko azterlana

Behatokiak sektoreekin lankidetzan aritzeko duen lan-ildoaren barruan, Euskal Herriko Abesbatzen Elkartek eta Kulturaren Euskal Behatokiak azterketa bat egin dute, abesbatzen sektorearen erradiografia orokorra egitea helburu, batez ere Euskal Herrian elkartutakoena. Pertsona helduek osatutako abesbatzei baino ez zaie erreparatu azterlan honetan. Erradiografia hau Elkartek eta Eusko Jaurlaritzak egiten duten laguntza-lanari eraginkortasun handiagoz ekiteko egin nahi da. Era berean, abesbatzek gizarteari egiten dioten ekarpena baloratzen laguntzen du, zeharka bada ere.

4. Kulturklik

Kulturklik euskal kulturaren erreferentziako ataria da, Euskal Herriko kultura-eragile guztiekin partekatzen dena, haien kultura-ekitaldiak eta beste eduki interesgarri batzuk zabaltzeko. Bi atal nagusi ditu, bata orokorra, eta bestea kulturako sektore profesionalari zuzendua. Gainera, atariak, barnean, euskal kulturaren egoera aztertzeko oso datu erabilgarrien biltegi gisa funtzionatzen du.

Automatizazioa

Baliabideak optimizatzeko eta kultura-agenda osatuena eskaintzeko helburuan aurrera egiteko, Kulturaren Euskal Behatokia automatizazio-prozesuak sustatzen ari da, eragileen programazioa automatikoki jaso dadin Kulturkliken. 2023an, bi automatizazio-prozesu ezarri dira (horiekin % 17ko automatizazio-tasa lortu da agendan):

- Donostia Kultura
- Vitoria-Gasteizko Udala

Hobekuntzak atarian

Kulturaren Euskal Behatokia hainbat hobekuntza bultzatu ditu atarian 2023 urtean, bai kanpoko erabilerari bai datuen barne-ustiapenari eragiten dietenak:

- **Haur-jarduera:** “haur-jarduera” ekitaldi-mota izateari utzi dio, eta mota guztietako ekitaldientzako zeharkako adierazle bihurtu da.
- **Agenda- eta sorkuntza-bilatzailetan iragazki berriak:**
 - “Haurrentzako bakarrik”: familientzako ekitaldiak edo sorkuntzak soilik erakusteko.
 - “Testu hau duena” eremua: gako-hitzen bidez bilatu ahal izateko (adib.: musika-talde baten izena).
- **Direktoria:** kultura-baliabideen direktorioko kategoriak ordenatzeko

eta garbitzeko prozesuaren esparruan, pertsona fisikoak ezabatu dira direktoriotik.

Txostenak

Kulturklikeko edukiak katalogatzeko barne-egiturari esker, datu eguneratuak berehala kontsultatzeko tresna sendoa bilakatu da Kulturklik; horrek gure inguruko errealitate kulturalaren askotariko alderdiak aztertzeko aukera ematen du. 2023an, Kulturklikeko datuak iturri dituzten bi txosten-serie abiatu ditu (ikus xehetasunak Azterketa kuantitatiboak atalean):

- Kultura-programazioaren azterketa: hiru hilean behin, eta urte osokoa.
- Emakumeek eta gizonek kultura-programazioan eta kultura-sorkuntzan duten presentziaren eta parte hartzearen azterketa: urtero (urtean sektore bat edo batzuk, laginaren tamainaren arabera).

Instagram

2023an, Kulturklikek kontua ireki du Instagramen eta, hartara, sare sozialetan duen presentzia areagotu.

Web-analitika

Web-trafikoaz aztertzeko Universal Analyticsek funtzionatzeari utzi zion 2023 udan, eta, horren ordez, GA4 zerbitzua ezarri du Google Analyticsek. Kulturaren Euskal Behatokiak sistema berrira egokitzeko lan-egitasmo bati ekin dio 2023ko bigarren seihilekoan, xede izanik Kulturklik audientzia-datuak neurtzeko panel xehea diseinatzea (2024an amaituko da).

Datuak

ARGITARATUTAKO EDUKIAK 2023	
TOTAL KLIK*	25.475
KLIK OROKORRA	
Agenda	21.239
Albisteak	1.632
Sorkuntzak	1.315
KLIK PROFESIONALA	
Albisteak	485
Dirulaguntzak	701
Prestakuntza	208
Argitalpenak	116
Bereziak	36
Direktoria	159

* Guztizkoa ez da lerro guztien batura, albiste motako eduki batzuk bi atarietan argitaratzen baitira. Guztirako baturan, bikoiztutako eduki horiek behin bakarrik zenbatu dira

ERAGINA 2023	
WEB-TRAFIKOA	
Saioak	2.630.877
Erabiltzaileak	1.575.013
Ikusitako orriak	3.921.311
BULETINA	
Bidalketak	52
Harpidetuak	4.038
SARE SOZIALAK	
Instagram	2.239
Facebook	7.211
Twitter	8.892

5. Komunikazioa

Kulturkaria buletina

Behatokiaren kanpo-komunikazioaren arloan, 2023ko berrikuntza nagusia Kulturkaria hilabetekariaren berdiseinua izan da. Kulturaren Euskal Behatokiaren identitate korporatibora egokitu da buletinaren diseinua, eta Behatokiaren edukiei garrantzi bisual handiagoa eman zaie.

Aldaketa dela eta, udako hilabeteetan ez zen buletina bidali.

Guztira, 2023an 8 buletin bidali dira (5 bertsio zaharrarekin eta 3 diseinu berriarekin), 1.970 pertsonak osatutako harpidetza-zerrendara.

6. Beste jarduera batzuk

Txostenak egitea, aholkularitza ematea, kontsultak ebaztea...

Lankidetzeta eta aholkularitza eskaini dira barneko gaietan, Kultura Sailburuordetzarentzat, bai eta beste administrazio, elkarte eta eragile partikular batzuen kanpo-eskaerei erantzuteko ere.

7. Behatokiaren lana zifratan

- 4 operazio estatistiko
- 250 adierazle eguneratuta
- 4 ikerlan kualitatibo argitaratuta
- 5 txosten kultura-programazioaren jarraipena egiteko
- 1 txosten emakumeek eta gizonek kultura-programazioan eta kultura-sorkuntzan duten presentzia eta parte hartzea aztertzeko
- 2 elkarlan (IKUSIKER y ORKESTRA) eta horien emaitza diren 9 txosten
- 1200 eragileri eman zaizkie Behatokiaren estatistika-emaitzak
- 1.500.000 erabiltzaile Kulturkliken
- 1 aurkezpen jardunaldi edo hitzaldietan
- 13 bilera jarraipenerako eta koordinaziorako



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

2023ko memoria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

